

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako toki-ogasunek 207 milioi jasoko dute 2017an, 2016an baino % 1,3 gehiago garbi

*Hala jasotzen da Foru Gobernuak gaur onartutako foru-legeko proiektu batean, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan duten Parte-hartzeen Funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen duena*

Asteazkena, 2016.eko azaroak 9

Nafarroako toki-ogasunek 2017. urtean guztira 207.159.063 euro jasoko dute, Foru Gobernuak gaurko bileran onartutako foru-legeko proiektu batean adierazten denaren arabera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan duten Parte-hartzeen Funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen duena transferentzia arrunten bitartez. Proiektu hori Nafarroako Parlamentura igorriko da presako prozedura bidez izapidetzeko.

Hurrengo ekitaldirako funts hori handitzea aurreikusten da aurreko ekitaldiarekin alderatuz, eta Nafarroako KPIk (kontsumoko prezioen indizea) duen bilakaeraren arabera handituko da, ekainetik ekainera kalkulaturik, eta ateratzen den portzentajeari portzentajeko bi puntu gehituz. Urte arteko KPI negatiboa izan zela kontuan hartuz (-% 0,7), toki-ogasunek izango duten gehikuntza garbia % 1,3 da, hau da, 2,3 milioi euro gehiago.

Hala, toki-erakundeetarako dauden baliabide ekonomikoak sustatzeko ildoari jarraipena ematen zaio; ildo hori abenduaren 28ko 24/2015 Foru Legeak hasi zuen, aurreko murrizketak konpentsatzeko xedearekin.

Funtsa banatzeko ildo nagusiak honako hauek dira:

- Transferentzia arruntak: 177.004.077 euro
- Iruñeko Udalari "Hiriburutza Agiri"-agatik: 24.155.895 euro
- Udalei Udaltzako kideei ordaintzeko: 5.596.373 euro
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 403.318 euro